

Hezkuntzaren psikologia Bigarren Hezkuntzan

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Eli Moreno Carrillo eta Leire Barbero Blanco

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Etorkizunean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan arituko diren profesionalei, hezkuntza egoeretan aplika daitezkeen baliabideak eskainiko zaizkie, faktore psikologikoetan eta pedagogikoetan oinarrituta ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eraginkorragoa izan dadin. Prozesu honetan eragina duten pertsona arteko faktoreak eta barne faktoreak aztertuko dira.

3. Konpetentziak

- Beren ikaskuntzan eragina izan dezaketen ikasle nerabeen ezaugarriak aztertzea eta ulertzea, eta, horretarako, hainbat hezkuntza-premia identifikatzea, baita egon daitezkeen disfuntzioak eta zailtasunak ere.
- Hezkuntzan esku hartzeko teknika, prozedura eta estrategia desberdinak identifikatzea, ikaskuntzaren teoria psikologikoetan eta konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza kontutan hartuz.
- Esku hartzeko hezkuntza-proposamenak planifikatzea, ikasleen gaitasunak eta ikasteko erritmoak kontutan hartuta (gizabanako gisa eta beste familia - eta gizarte- eta kultura- testuinguru batzuetako kide gisa).

4. Ikas-eremak

- Teoria psikologikoetan oinarria duten metodo, teknika eta metodologia desberdinak ezagutzen ditu.
- Ikasleen ezaugarriak aztertzen eta ulertzen ditu, izan ditzaketen hezkuntza beharrak identifikatzeko.
- Irakasle-ikaslearen eta ikasle-ikaslearen arteko elkar eraginaren ondorioak ezagutzen ditu eta hezkuntza esku hartzea planifikatzeko erabiltzen ditu.

- Hezkuntza esku hartzeak planifikatzen ditu, ikasle taldearen, irakaslearen eta barne eta kanpo faktoreak kontutan hartuz.

5. Edukiak

1. gaia: Hezkuntzaren psikologiaren garapena: Psikologiak hezkuntzari egindako ekarpenak historiaren zehar gaur arte.
2. gaia: Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan metodologia desberdinak eta hauen ebidentzia zientifikoa.
3. gaia: Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan determinatzaile pertsonalak: gaitasunak, prozesu neuropsikologikoak, emozioak.
4. gaia: Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan pertsonen arteko elkar-eragina: isuri kognitiboak, komunikazioa, gatazka.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Gil Molina, P. (2013) Hezkuntzaren Psikologia: Teoria eta praktika. Bilbo; EHU.
- Ruiz Martín, H. (2021). ¿Como aprendemos? Una aproximación científica al aprendizaje y la enseñanza. Graó
- Ruiz Martín, H. (2020). Ezagutru gure garuna ikasten ikasteko. Istf
- Marina, JA. eta Pellicer, C. (2015). La inteligencia que aprende. Santillana
- Manzanares, A. eta Sanz, C. (2018). Orientación profesional fundamentos y estrategias. Ediciones de la Universidad de Castilla-L Mancha
- López Juez, MJ. (2019): Neuro-Hezkuntza: Hezkuntzaren paradigma berri baten aurrean gaude?. Esteka, (4), 4-7.

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>

 : goimailako
: online
: institutua

Amurrio, J. (2019): Ikaskuntzaren hobekuntzarako neurozientziaren ekarpen esanguratsu batzuk. Esteka, (4), 32-37